

baleike

www.baleike.com

2006ko MARTXOA
142. ZENB. DOHAINIK

aparraren ikuskitzuna



BAINA ZER EGITEN DUZU MOZORROTU GABE?

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Itziar Mora

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbiet

Itziar Garate

Izaskun Urbiet

Maitane Agirre

Iure Alzibar

Abelin Linazisoro

Haize Galarra

Kolaboratzaileak

Juan Luis Romatet, Xebas Leiza,

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Unai Gijarro, Joanito Dorronsoro,

Eneko Dorronsoro,

Xabier Aranguren, Xabier Aizpurua,

Ibon Aizpurua, Izaga Garzia,

Beñat Fernandez de Arroyabe,

Jon Maia, Eguzki Agirrezabalaga,

Natur Taldea, Ander Hormazuri,

Aitor Manterola

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

gurenda@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua: SS-405/94


ISSN: 1136-8594

Baleike ez du bere gain

hartzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
orain hamar urte	7
ze berri	8
talaia	
aurrerapena eta historia	14
argazki erreportajea	
inauteriak	18
gure zumai zarra	
emili ibarbia aldasoro	21
erreportajea	
eguneko zentroa	24
olarru zopa	27
kirola	
krosa	29
batelak	31
zine forum	33
agenda	34



gure zumai zarra **torreko emili**

Egunero-egunero etortzen
zen Goiko Plazara bere
barazki, arrautza, baba eta
abarrekin

Zumaia, herri euskalduna?

Hau irakurtzerakoan askok pentsatuko dute, zergatik galdera hau Zumaia herri euskalduna da eta!!

Ba, hemen hausnarketa xume bat honen inguruan:

Mintzoari dagokionez, azken urteei erreparatzen badiogu, behintzat, datu kezagarriak ikus ditzakegu. Euskal Soziolinguistika Institutuak (SEIk) hitzezko erabileraren inguruko neurketak egiten ditu Euskal Herrian, eta hona hemen Urola Kostako datuak: 1993an, % 61,8; 1997an, % 67,5; 2001ean, % 61,1. Pentsatzen dut aurki plazaratuko dituztela datu berriak, baina datu hauek zer pentsatua ematen dute! Zumaian ere, nahiz eta euskararen ezagutza % 76 ingurukoa den, erabilera % 40 ingurura jaisten da.

'Erabiltzen den hizkuntza ez da hiltzen' sarritan erabili izan den esaldiari erreparatuz gero, esan dezakegu euskarak ez duela etorkizuna ziurtaturik.

Herritarak normalean ez gara ohartzen zer nola-ko garrantzia duen euskara erabiltzeak. Uste dut hausnarketa sakon bat egin beharko genukeela honen inguruan.

Olentzeroak pasatu dira, baina konpromiso handiagoa eskatuko nieke politikoei, hau da, normalkuntza sendo bat eta benetako ofizialtasuna lortzeko urrats sendoak egin ditzatela. Politiko guztiak ohartu beharko lirateke euskarra lur eder honetan dugun altxorrik handiena dela, denon laguntza behar duela eta joko politikoen gainetik beharko lukeela. Zoritxarrez, uste dut oraindik urrun gaudela!!

Idatzi honen bitartez, gonbidapen bat luzatu nahi diet euskaltzale direnei, euskararen alde lan egiteko. Zaila bezain ederra baita gure hizkuntzaren alde lan egitea.

Eta ez nuke agurtu nahi besarkada bat eman gabe euskaraz ikasten ari direnei eta bereziki euskararen alde lana musu-truk egiten dutenei.

Ruperrek zioen bezala, zaindu maite duzun hori.



Xebastian Leiza

dani



zuMiami (edo teleparrandak tabernetan)



xa2

eta lelotuago uzten gintuzten. Hain ziren interesgarriak!
Kalera irten, eta mundu guztiak berak esandakoaz
jarduten zuen.

-Entzun al dek?

-Earra bota din!

-Ta beste harrekin hasi danian?

Ustekabean etxeko
egongelara sartu zen,
eta gu, inoiz baino
alaiago. Lagun
berritsuak inoiz entzun
ez genituen kontuak
kontaktzen zituelako.
Gero, sukaldeko lanak
egiten ari ginela ere,
hasi ginen bere
berriketaldiak aditzen,
lapiko artean bertan.
Lagun hark kontaktzen
zizkigun istorioek gero

Erakargarria izan laguna, eta batzuk berekin
oheratzera ere ausartu ziren. Izan ere, badauka halako
argi berezi bat. Txundituta gauzka zeharo. Batzuk,
berekin ez bada, lorik ez hartzeraino. Egongelan,
sukaldean, logelan. Etxeko lagun leiala bihurtu zaigu.
Orain, kalera ere gonbidatu dugu, tabernetara.

Zure sareetan harrapatu nauzu. Zuri begira pasatzen
ditut ostiral gauak tabernetan. Zuritoak ez zaizkit berdin
sartzen zu ez bazaude bertan. Hitz egin ere, koadrilakoen
marmarra baino, zurea nahiago. Ixilean egoten zara,
baina xorro-xorro gauzak esaten beti. Larunbatetako
parrandetan, izar handien melodiak abesten dizkizidazu,
modeloen dantza sentsualak erakusten. Etenik gabe, zuri
begira igarotzen dut gau guztia. Ezin dut jasan, gauaren
amaieran, itzalita bezala ikusten zaitudanean, hormaren
kontra, eskegita bezala. Tristuraz itzultzen naiz etxera,
bakarrik. Baina, badakit, betiko gisan, inork ikusi gabe
joan zarela bertara, zain izango zaitudala logelan,
biluzik, eta berriz ere piztuta.

Maite zaitut, telebista.

Noraino iritsi behar dugu?



Era guztietako instalazioak etxelizitza, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5. pabiloia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409



Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089




Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24



- Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua
Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446



Emilio Perez
Elektragarri, telebista eta instalazio
elektrikoen salmenta eta konposaketa

ADI

BASADI 28
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adiele@euskalnet.net

ZUMAIAKO TABERNARIEI

Zumaiako EHE (Euskal Herrian Euskaraz)

Zumaia Urola bailaran kokatutako herri bezala, herri euskalduna dela diote, hots bere kaleetan euskara entzuten den herri gutxi horietako bat dela. Baina kontu bat da lurralde euskaldunean bizitzea eta beste oso bestelakoa herri euskalduna izatea. Gehien-goia diren politikoei garrantzi handia ematen diote euskararen ezagutzari, esanez Francoren ondorengo demokrazia honetan bizi garenetik euskaraz dakiten herritarrak askoz ere gehiago direla. Guk ez diogu garrantzi handirik ematen datu honi aldi berean euskararen erabilera kaleetan murrizten baldin badao. Eta Zumaian, zoritxarrez, espainola da nagusi gure kaleetan. Eta erabiltzen ez den hizkuntza hil egiten dela edo euskararik gabe ez dela Euskal Herririk jakin beharko lukete erdara hain maiz eta ongi erabiltzen duten politikoei. Baita euskaldun izan eta beti erdara erabiltzen duten herritarrek ere.

Beno, baina idatzi hau herriko tabernariei zuzendua da eta euskarari buruz zerbait esanez hasi bagara non eta nola bizi garen kokatzeko izan da. Besterik gabe. Euskara gutxi edo gehiago erabili kontu honetan tabernariak, jakina, ez duzue erantzukizunik, ez bada herritar mailan, baina bai

baduzue beste kontu batean eta hau tabernan zer musika jarri erabakitzen duzuenekoa da. Tabernariak askatasun osoa duzue zer musika jarri eraba-

“Asteburuetan edo festetan, Sevillan edo Salamancan edo Zumaian izan alde handirik ez dagoela esango genuke”

kitzeko orduan, noski, baina guk dei bat egin nahi genizuke esanez Euskal Herrian bizi garela eta gure nazio hau ikaragarri aberatsa dela musikan. Zenbaitzuk ez badakite ere, euskal musika izan da eta bada. Eta gaur egun era eta mota denetako talde eta bakarlariak daude. Baina Zumaiako taberna gehienetan, zoritxarrez, musika erdalduna gehiegi entzuten da, bereziki asteburuetan edo festetan. Egun hauean Sevillan edo Salamancan edo

Zumaian izan alde handirik ez dagoela esango genuke. Erabat lotsagarria.

Hego Euskal Herrian gure hizkuntza, gaur egunean, espainolaren hizkuntzaren menpe badago, ez da kasualitate hutsa, beste arrazoi askoren artean, arrazoi handiena gobernu espainolek euskara desagerrarazteko erabilitako hizkuntz politika izan da erantzule. Legediaren bidez: II. Gerrate Karlista galdu ondoren (1876tik aurrera) edo zapalketa bortitzaren ondoren: Francoren 40 urteko diktadura. Ahaztu gabe gaur egungo Espainiar Konstituzioan euskaldunok espainola jakitera derrigortuta gaudela, baina euskara jakiteko eskubidea soilik dugula. Beraz, Euskal Herrian bizi garenez, musika euskalduna entzutea normala izan beharko luke, eta, euskara eta euskal kultura indartu nahi badugu euskararen aldeko jarrerarekin batera, ezinbestekotzat jotzen dugu denon lana, baita tabernariena ere. Horregatik, Zumaiako egoera nahiko tristea dela ikusirik, eskertuko genuke Zumaiako tabernetan talde edo bakarlari euskaldunen musika sarriago entzun ahal izatea. Hizkuntza bezala, musika euskalduna ere galdu ezin dugun gure altxorra da eta. Aldez aurretik mila esker.

ILEAPAINDEGIA

IRUITZ

San Telmo, 12
Tel. 943 860760



Arantza Aramendi

EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

TOMAS
TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16

Inauteriak eta beste komeria batzuk

Orain 10 urte... Zumaia zuri ikusi genuen, aurtan joan den hilabetean gertatu den bezala; zeinek daki oraindik ere berriro egingo ez ote duen... Aurtan behintzat argazki asko jaso ditugu eta ikusgai dituzue gure webgunean.

Orain 10 urteko aldizkarian, Joxe Mari Azkueri elkarriketa egin genion. Bizi ahal izateko edozer gauza egingo lukeela esaten zuen... Nor den? Ba, k... begiratu orain dela 10 urteko aldizkarian! Mexikon ibilia zela besterik ez dut esango.

Orain 10 urte ere antolatu zuten herri krosa. Eta, orduan bezala, aurtan ere sekulako arrakasta izan omen da, sekulako jende pilak hartu baitu parte.

Orain 10 urte ere inauterietako argazki mordoxka genituen eta jarri ziren orduko aldizkarian. Zenbaitzuk gustura ibili ziren eta ibiliko dira, baina orain beste plan batean, ezta ala?

Orain 10 urte...iruditu zitzaigun Erribera kalea hutsik zegoela... patxanganeko etxeak bota zituztenean... eta barra berriko harriak mugituta... (Oraindik ere ikusten da hala-
korik).

10 urtetan... nola aldatzen diren gauzak. Edo ez?



MENDI - ONDO C.B.

ELEKTRIZITATEA

Urola Plaza, 21

Tel. 943860074 - 943861569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



Ignacio Zuloaga enparantza

Tel. 943 861157

Sinadura eske ebakuntza baten gastua ordaintzeko

Telmo Irureta eta bere senideak sinadurak biltzen dabilta Zumaian eta Zumaiaetik kanpo. Iaz egindako ebakuntza baten gastuaz Espainiako Osasun Ministerioa ardura dadin nahi dute. Orain arteko erantzuna ona izan dela diote eta, beraz, helmugatzat dauzkaten 500.000 sinadurak lortuko dituztelakoan daude.



Urte hasieratik ikus ditzakegu Telmo eta bere sendiari laguntzeko jarritako sinadura orriak herriko hainbat gunetan. Azaldu digutenez, "Lehengo urteko udan ebakuntza egin zioten Telmori Murtzian eta ebakuntza horren gastuak Gizarte Segurantzak ordain ditzan ari gara hau egiten".

Telmok hamazazpi urte ditu eta buruko paralisia du; horrek bere gorputzean eragiten du, baina buruan ez. Lehengo urteko udan egindako ebakuntzan espastizitatea kendu zioten. "Espastizitateak buruko paralisia duten pertsonen muskuluen azala hondatzen du, eta horrek muskulua gogortzen du. Murtzian egindako ebakuntza horren bidez hildako azal hori moztu egiten dute eta, beraz, muskuluak askatu", esan digu bere amak, Isabel Uriak.

Baina ebakuntza horren kostua 6.000 eurokoa izan da eta ez da Gizarte Segurantzaren barnean sartzen. Hori lortzeko itxaropenarekin ari dira orain 500.000 sinadura bildu nahian. Oraingoz 3.000 bidali dituzte Espainiako Parla-

mentura eta oraindik denbora geratzen zaie. Izan ere, sei hilabeteko epea eman zieten sinadurak aurkezteko. Orain arteko emaitzak ikusita "gauzak ondo" doazela diote, "jendea ondo erantzuten ari baita".

Hala ere, beraiek esan diguten bezala, "Horrek ez du esan nahi gastua onartuko dutenik. Eskatutako sinadura kopurua lortuta kasua kontuan hartzen hasten dira, baina horrek ez du esan nahi erantzuna baiezkoa izango denik. Guk, gutxienez, kasua kontuan hartzea nahi dugu".

Sinadurak Zumaian eta Zumaiaetik kanpo biltzen ari dira. Izan ere, familiako adarren bidez Oreretara, Azkoitia... zabaldu dute laguntza eskaera. Zumaian, berriz, Loitzen, Maite Iruretan, udal kiroldegian, Zumaiaiko Herri Eskolan eta Maria eta Jose Ikastetxean aurki ditzakegu sinatzeko paperak.

Beraz, Telmo eta bere familiari lagundu nahi diotenek badakite nora jo dezaketen!

Disko eta liburuen azoka arrakastatsua

4.700 euro lortu dira, iaz baino gehiago. Saharara bideratuko da azokako dirua, herriko ikastetxeen bitartez.

Baleike Kultur Elkarteak bigarren aldiz antolatu zuen otsailean liburu eta disko zaharren azoka. Hasiera emateko, ostiralean, mahai-ingurua izan zen Oxforden. Sekulako hotza egin arren, jende pila bat azaldu zen Saharako Arabiar Errepublikako Demokratikoaren Adiskideen Elkarte-ko lau kideen iritziak entzutera.

Asteburuan, batez ere larunbatean jende mordo hurbildu zen, bigarren eskuko altxorren bat eskuratzeko asmoz. Aurten ere denetatik eraman du jendeak etxera, eta sekulako arrakasta izan da.

Azokarekin lortutako dirua, Saharako errefuxiatuei laguntzeko bideratuko da, Zumaia-ko ikastetxeen bitartez. Dakizuenez, Maria eta Jose ikastetxeko eta Zumaia-ko Herri Eskolako ikasle eta irakasle talde bat joango da apirilean Saharara, eta haiek eramandako laguntzari gehituko zaio azokan bildutako dirua, botikak edo behar den edozer gauza lortzeko.

Aurten ere, bi helburu bete ditugu guztion artean: kultura sustatzea eta beharra duen herrialde batentzako dirua biltzea. Izan ere, 4.780 euro bildu ditugu. Ez zarete makalak!

Beraz, eskerrik asko materiala eman duzuenoi eta azokan parte hartu duzuen guztioi.



Sahararen Aldeko Elkartasun Astea



Martxoaren 6tik 12ra, herriko ikastetxeek antolatuta, Saharako Herriaren Aldeko Elkartasun Astea ospatzen dute. Oxforden antolatu duten erakusketaz gain, larunbata Elkartasun Eguna izendatu dute, eta hainbat ekimen izango dira; esaterako, Beheko Plazan haima bat jarriko dute, sahararrek beraien ohiturak erakutsi ditzaten.

CROISSANTERIA

marina

pizzak
hanburesak
bokatak...

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

Rosi
garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Galdona

burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
Juan Belmonte, 15 943 143346
Faxa. 943 861330


Ostiralean, martxoak 10, Julene Azpeitia sari banaketa eta antzerki emanaldia

Azkenean, Julene Azpeitia literatur sariak banatuko dira. Aita mari aretoan izandako arazo batzuegatik atzeratu zen otsaileko ekitaldia.

Ostiralean, Julene Azpeitia literatur sariak banatuko dira arratsaldeko 19:30ean hasiko den ekitaldian. Kutzak ematen duten 3.000 euroko saria jasoko du Agustin Arrietak "Kalezuloetan barrena" lanagatik. Bigarren saria, 1.500 eurokoa, hori ere Kutzak ematen duena Xabier Artolak jasoko du, "Asif" lanarengatik. Eta, hirugarren saria, 1.000 eurokoa, Zumaiaiko Udalak ematen duena, Igor Albizuri emango zaio "Egunerokoak" lanarengatik. Ondoren, Bernardo Atxagak idatzi eta "Ez dok hiru" bikoteatroak taularatzen duen "Lezio berri bat ostrukari buruz" antzezlanak ikusi ahal izango da. Sarrerek doan izango dira.

Zumaiarren artean lan onena Igor Albizuren ipuina zela erabaki zuen epaimahaiak. Osorik irakurri nahi baduzue, baleike.com helbidean daukazu.

Imanol Azkueren "Kea airean bezala" lanak irabazi du Lizardi Saria



Baleikeko lankide dugun Imanol Azkuek irabazi du haur eta gazte literaturako ipuin lehiaketa. Zorionak Imanoli!

dekorazioa
ALBERDI

696 726188
943 143261

• Eskaiola
• Pladur-a

OSTOLAZA
BURDINDEGIA

Jose M^a Korta Induristegunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAI
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUZ
(GIPUZKOA)
Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40
Jardinen diseinu
... mantenimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiral zelaien mantenimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,
Balorazioak
Nekazaritza Injineru Teknikoak

ZALLA
Taberna - Erretegia

* plater konbinatuak
* otartekoak
* oilasko erreak

San Pedro, 4

Tel. 943 862387

H o r t z k l i n i k a

MOZÈS HIRIART eta SOULIER
Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- * Endodontzia
- * Implantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Implantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behe. • ZARAUZ • tfnoa: 943-130278

Euskal curriculumaren aldeko ekimena

Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenaren helburua Euskal Herriak bere hezkuntza sistema propioa izatea da, eta nahi horren zutabea da

Euskal Curriculumuma. Horri buruz hitz egin zuten Pello Iruretagoienak eta Arantxa Landak Zumaian emandako prentsaurrekoan.

Orain arte, Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak, bi urtetan zehar, Euskal Curriculumaren garrantzia azaldu izan du jendarte-an, gizartea motibatuzko. Lan horren baitan, azkeneko pausoa, herriz herri Euskal Curriculumuma aurkeztea izan da.

Bigarren urratsa orain hasiko dute: Euskal Curriculumaren diseinua egitea. Gero, aplikazioa hasiko da, baina orain aplikazioa gauzatzeko testuinguru egokia sortu nahi dute. Izan ere, atzetik bultzadarik ez badu, Euskal Curriculumuma apalean hautsa biltzen gera daiteke.

Lege aldetik oztopo ugari dago, eta gizartean edo eskola komunitate-an ez bada beharra sustatzen, aldarrikapen hutsean gera daiteke. Horregatik, diseinuaren zirriborroa egiten dutenean beharrezkoa izango da beste urrats bat: herritarrek ekarpenak egitea. Azken urratsa 2006 bukaeran izango da: ekarpenen sintesia egingo dute; alegia, diseinua osatuko dute.

Espainiak laster onartuko du LOE, eta aldaketa handirik ez omen du ekarriko, txarrerako ez bada. Espainiak orain %55 gordetzen du bere curriculumarentzat, eta %45 erkidegoentzat. LOE berriarekin hori gutxienekoa izango da. Euskal Herriak Bere Eskola ekimenaren ustez, Euskal Curriculumak Euskal Herri osorako behar du izan, eta eragile guztiek osatu behar dute.



Aurrera begira, eskola komunitateari dei berezia egin nahi diote, eztabaidan parte har dezan. Horrez gain, Administrazioen gainean egon beharko dute, Euskal Curriculumuma oso-osorik hemen gauza dezaten. Luze joko du aplikazioak. Hori dela-eta, eragile guztien artean estrategia garatua antolatu beharko dela esan zuten.

WEBGUNEAK:

[www. Euskalcurriculumuma.org](http://www.Euskalcurriculumuma.org)

www. Euskalcurriculumuma.info

www.euskaleskola.org



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



ze berri


olatuak...

Handiak izan ziren Zumaia eta Getaria artean sortu zirenak. Hedabideek emandako bultzadaren

ondorioz, milaka lagun hurbildu ziren gure kostaldera naturako fenomeno hau ikustera.



Argazkiak:
Gorka Zabaleta,
BALEIKE



...eta polemika

Izan ere, eztabaida piztu zen sarean Planeria eta Izustarri izenen inguruan. Eztabaida horri eta

olatuari buruzko mezuak ugarienak izan dira gure webgunean.

istripua planeixako olatuan

NORK: kaxka NOIZ: 2006/02/14-16:00 GAI: Kiroa

Ibon Amatriainek eta Mikel Agotek istripua izan dute Planeixako olatuan

Biak onik atera direla kontatu digu Aitor Mantarola Hitzako kazetariak, baina zurto ederra hartuta. Ibon mototik erori eta olatuak haitzen kontra eraman omen dute. Mikel olatu artean gelditu da, eta azkenean igerian lortu omen du ateratzea.

Planeixako olatusekin lotuta, erreportaje bat agertu zen orain pare bat aste berrian. [Hemen](#) irakurri dezakezue.

ERANTZUNAK (88) Erantzun

*Playa Gristen ez dago olaturik...

Baleike. 2006/02/15 - 12:20 PM

Agindu bezala, komunikabideetara zabaldu dugu oharra. Komunikabide guztietara bidali dugu, eta baita Surtatu.com eta alaplaza.com webguneetara ere.

Hau da bidalitako oharra:

Playa Gristen ez dago olaturik...

Azkenaldian fama hartzen ari da Zumaia eta Getaria artean batzuek "Playa Gris" deitzen dioten tokiko olatua. Atzo izandako istripuaren ondoren, gainera, medio askotan atera da "Playa Gris" edo "Hondartza griseko" olatuaren berri. Horren aurrean, baieztapen bat egin nahiko genuke: **Playa Gristen ez dago olaturik... Playa Grisik ez dagoelako.**

Gai honek lehenik ere kezka sortu zuen (ikus [hemen](#)) eta orain, komunikabide guztietan azaldu denean, areagotzen ari da (ikus [hemen](#)). Kontua da "Playa Gris" izena bertan antzinaren surflariak jarritako izena dela, besterik ezagutzen ez zutelako. Baina toki horiek badu jatorriko toponimoa, eta hori eutsi nahi genioke zumaierok: gure "zaharrek" leku hori "planeixa", "planeiya", "planeixka" deitzen diote ("Planeria" idatziko genuke), eta ez legoke gaizki izenari eustea.

Honen bitartez, eskertuko genizuke zuen medioetan aurrerantzean informazio hori argitaratzeko garaian hau kontuan hartzea.

Bestenik gabe agurtzen gara,

Baleike Kultur Elkartea

* Kanpainaren oihartzuna

erdikobontze. 2006/02/17 - 09:15 AM

Nik ez nuen uste hainbesteko indarra geneukanik! Fundamentuz lan egiteak ekarri du bere ordaina. Zorionak guztioi eta gora Planeria!!!

Erantzun gai nagusiarri | Erantzun honi | [Erabatu](#)

*Kanpainaren oihartzuna

Torkuato. 2006/02/17 - 03:03 PM

Geu kanpeon! Eta halako olatua sortuarazi degu, zer eta Getarian daon gure bateabakan!! Haiek zer dioten afituko nuke guztioi!

Erantzun gai nagusiarri | Erantzun honi | [Erabatu](#)

* Kanpainaren oihartzuna

Torkuato. 2006/02/21 - 09:22 AM

Atzo bertatik bertara entzundakoa: Planeixa, baina Getarian dagoela argi eta garbi utzita. Agustín Ezenaero tartean da eta normala iruditzen zaio. Beste izenik ez du proposatu eta...

Erantzun gai nagusiarri | Erantzun honi | [Erabatu](#)

*Denak ez dira konforme!!

Torkuato. 2006/02/20 - 08:35 AM

Atzo **Dun gutun bat** argitaratu zuten eta sinatzaileak dio, "benetako" izena errespetatzen duen amen, herriko kirol ekintza handia lortu izanak eskubidea ematen duela beste izen bat jartzeko. Ni ez nago ados, eskalada munduan bide berriak zabaltzeki eta izena jartzeki zentzua duen amen, surfistak toki ezagun batean aritu direlako surfeari. Beraz, lagun artean erabili dezatela "Playa Gris" itsusi hori, baina hedabideetan eta mapetan "Planeria" edo "Planeixa" bultzatzen eta eskatzen jarrai dezagun!!

Alkatearekin elkarrizketa

Udalean aurrekontuen harira piztu zen istiluaren ondoren, bata besteari atzetik etorri dira adierazpenak, prentsaurrekoak eta abar. Eztabaidaren benetako arrazoiez hitz egin dugu M^a Eugenia Arrizabalaga alkatearekin. Elkarrizketa baleike.com-en irakur dezakezue.



marea errotaren aztarnak:

aurrerapena historiaren kaltetan


Zubiaurre auzoko marea errota zaharraren aztarnak izan daitezkeen harriak agertu ziren otsailaren hasiera aldera San Telmo kalearen barrenean. Agertu eta ordu gutxitara, ordea, lurrarekin estaltzeko agindu zuten. Herriko historiaren zati bat lurperatu nahi al zen neurri honekin?

ZUBIAURREKO ERROTARIA

Otsailaren 6an agertu ziren errotaren aztarnak San Telmo kalearen barrenean, "Carmelo Unanueren etxea" bezala ezagutzen den eraikinaren parean, hain zuzen ere. Lehen Carmelo Unanueren lantegia zegoen lekuan orain etxebizitza berriak egin behar dituzte, eta lurra altxatzen ari ziren, Ardantza erreka urak eramateko hodiak sartzeko. Orduan agertu ziren harriak, zuloa egiten ari zirela. Hareharritzkoak ziren, landuak, eta arku baten egitura osatzen zuten. "Antzinako itxura eta oso zaharra izatearen traza" zutela zioen bizilagun batek.

Adituen esanetan, babestutako guneko arkeologikoa da toki hori; hau da, edozein lan edo obra hasi aurretik zuloak edo katak egin behar dira luraren azpian zer aurki daitezkeen jakiteko. Edozein aztarna aurkituz gero, erakundeei abisatu behar zaie, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Historia eta Ondare zerbitzuari. Harlandu hauen kasuan hala gertatu al zen? Ez hasiera batean, behintzat.

Otsailaren 9ko HITZAK jasotzen zuenez, harriak azaldu eta gutxira Udaleko aparejadorea azaldu zen. Obrako arduradunarekin hitz egin eta gero, aurkitu zutena estaltzen hasi ziren langileak. Kazetariak zioenez, kaleko bizilagunak harrিতuta geratu ziren udal arduradunek hartutako neurriekin. Hirigintza Saila arduradun batekin ere hitz egin zuen kazetariak horri buruz eta arduradunaren iritzia bestelakoa zen: "Ni bertan izan nintzen, eta beste teknikari batek aipatu zidan zerbait, baina ez zion garrantzirik eman aurkitutakoari. Horma zati bat zen, zaharra, baina ez antzinakoa". Arduradun horrek zioen, gainera, ez dagoela txostenik leku hori arkeologia aldetik garrantzitsua dela dio-



Erabat estali aurretik aztarnak ikusten ziren.

enik. Gauzak are gehiago nahasteko, Aranzadik zioen ez zuela berririk harri horien gainean.

Otsailaren 10ean, aurkikuntzaren berri izan ondoren, Alkatetzak lanak gelditzeko agindua eman zuen. Egun batzuk geroago banatu zuen prentsa oharrean irakur zitekeenez, Foru Aldundiaren Historia-Ondare Zerbitzura abisua eman eta bertako teknikariak eta Aranzadi Elkarteko Jesus Manuel Centeno eta Xabier Alberdi aztarnak aztertzerantz joan ziren. Agertutakoa baloratu eta dokumentatu ondoren, Udalak dio lanekin jarraitzeko baimena eman zutela. Teknikarien ustetan, "Presako Torreko marea-errotaren albo bateko harlanduak dira agertuta-



koak, eta obrak puntualki soilik eragin diete".

Kaleko zenbait bizilagunek, ordea, ez dute uste arkeologoek aztarnak bere osotasunean ikusi eta aztertu zituztenik, ordurako ia erabat estalita baitzeuden. "Gehienez, zutik zegoen harria ikusiko zuten. Beste guztia lur azpian zegoen", zioen bizilagun batek.

Viva Españatik Odietara

Arkeologoek uste dute Zubiaurreko marea errotaren aztarna nagusiak Amaiaiko plazaren inguruan egongo direla. Hala baieztatzen zuen Alkatetzak komunikabideei bidalitako oharrean: "Uharkak izango zukeen norabidea kontuan hartuz, aztar-

"Patrimonio historikoa nola zaindu duen ikusita, zenbaterainoko sinesgarritasuna dute Udalaren hitzek?"

narik esanguratsuenak Amaiaiko plazarekin lotzeko urbanizazio berria egiterakoan ager daitezke; horregatik, urbanizazioarekin hasterakoan ezarriko dira beharrezko kontrol arkeologikoak". Zumaiaiko patrimonio arkitektoniko eta historikoa nola zaindu eta errespetatu duen ikusita, zenbaterainoko sinesgarritasuna dute Udalaren hitz hauek? Azken urteotan erakutsi duten jarrerari so egiten badiogu, behintzat, nahiko urria dela esan daiteke. Gogoratu besterik ez dago Arranplako garabia edota Arbillaganeko zaku fabrika gorde, babestu edo berritze-ko erakutsi zuen borondate eza.

1931. urtean kokatu zuten garabia Arbustaingo arranplan. Garabia Zumaiaiko kaiko etengabeko jardueren eta ondorengo urteetako gainbeheraren lekukoa izan zen; 50 urte luzetan lanean aritu zen, harik eta 1981. urtean erretiroa hartu zuen arte. Ordutik, eta 2000ko apirilaren 26an Urola ibaiko uretara erori zen arte, arranplako "parlamentuko" ezaugarri eta hainbat haur eta gazteren jolasleku bilakatu zen. 1999. urtean, erabaki

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

**FARMA ZUMAIA
PARAFARMACIA**

653 01 96 81

PRODUKTUAK

- Urne eta Haumentzat, Dietetikoak, Kosmetikakoak, hanka eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dietista, Naturopatia, Iridiologia, Bach loreak, Masajeak (Terapeutikoak, Kirolentzako, Lesioetakoak, Esloresan, Antibetaren, Buruko minen, Zirkulazio arazoan,... kontrakoak), Akupuntura: orratzekin eta orratzik gabe.

BASADI KALEA, 3 - BEHEA • ZUMAIA



"Garabiaren zatiak Santiago inguruko sasi artean daude, herdoiltzen"

ulertezin baten ondorioz, zutik mantentzen zuten bi euskarriak kendu zizkioten eta pixkanaka okertzen joan zen 2000ko apirilko egun hartan uretara erori zen arte. Berritu eta kirol portuan jarriko zutela zioen zurrumurru bat entzun zen, baina egia bakarra da garabiaren zatiak Santiago inguruko sasi artean daudela, herdoiltzen.

Garabi honen historia jasotzen duen liburu eder bat argitaratu zuen 2003. urtean Rafael del Pilar Zufiak, "Arbustain, garabia gogoan/Recuerdos de una grúa" izenekoa.

"Viva España" edo "Arriba España" izenarekin ezaguna zen Arbillaganeko fabrikaren obrak 1896. urtean hasi ziren, errioiari irabazi zizkioten Ondartxo izeneko lurretan. 1899. urtetik 1921. urtera bitartean Arbillaganeko zaku fabrika izan zen. Urte hartatik aurrera, Astilleros Balencia-ga enpresak erabili zituen pabilioiak, hainbat lanetarako (arrantza ontzi txikiak egiteko, itsas motorrak egiteko, lurrin makineriarako...). Etxebizitza berriak egiteko asmoz, 2000ko ekainaren 26an eraitsi zuten fabrika zaharra. "Euskal Herria" aldizkariaren 20. zenbakian, kostaldeko herrietako plazei buruz egindako erreportaje batean, honako pasarte hau irakurri daiteke: *"La plaza Amaia, es el espacio urbanizado formado por el rellenado del muelle y la urbanización de las marismas de Arrangoleta. En el entrante portuario, con privilegiada posición, se encontraba la Yutera Arbillaga, ejemplar único y uno de los más bellos edificios industriales de Gipuzkoa. Incomprensiblemente derribado hace pocos años"*.

Antzeko zerbait gertatuko zen Odieta frontoiarekin, pilota elkarateak eta zenbait lagunek Udalari fronte egin ez balio-te. Eusebio Gurrutxaga eta Odieta kalean egin behar diren obrekin batera, 1888. urtean eraikitako Odieta zaharra oso- osorik botatzea pentsatzen zuen Udalak. Azkenean, hainbat bileraren ondoren, frontisa eta ezker hormaren zati bat gortetzea adostu zen.



SIWA
Belardenda
Basadi 9
943 143404

- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak
- Kontsulta naturalista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reliki ikastaroak



Arkupe
Okindegia
eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521



Zumaia Hotela
Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



Bidegabeko aurrerapen baten aitzakian, denon begien aurrean zeuden edo dauden eraikinekin halako jokabidea erakutsi badu, lur azpian ezkutatuta dauden aztarnekinek zer egiteko gauza ez da izango. Badaezpada ere, adi egon beharko dugu.

Marea errota, zer eta non?

Baina zer zen eta non zegoen marea errota hori? Errioko uraren bitartez lan egiten zuen errota zen, eta Amaia plaza nahikoa hurbil zegoela uste dute. Garai hartan itsasoko urak Arantzabideraino heltzen ziren, eta errota martxan jartzeko, uraren joan-etorria erabiltzen zen.

Lourdes Odriozolak, "Zumaia Historia" liburuan, hiru orrialde (385-387) eskaintzen dizkio errotari. Historialariaren esanetan, Zubiaurrekoa "Zumaian egon den errota bakarra eta Gipuzkoako bakarretako bat izan zen". Liburuan irakur

"Zumaian egon den errota bakarra eta Gipuzkoako bakarrenetakoa"

daitekeenez, errotek Zumaia-ko ekonomian garrantzi handia zuten garai hartan. Oso argi ez badago ere, Zubiaurre edo Pressaco-Torreako errota XVI. mendean egin zela uste dute, lehen aipamenak 1542 urtean agertzen baitira. Ondorengo mendeetan errotari buruzko hainbat aipamen jasotzen dira dokumentuetan. Asko errotaren jabetzari buruzkoak dira; beste batzuek, berriz, kokapenak ("Hiribilduaren gunean bertan eta Errege Bideari itsatsita") jabe eta agintariei sortzen zizkieten buruhausteen berri ematen dute. XIX. mende amaiera arte martxan egon zen, 1885. urtean aurkitzen baita errotaren azken aipamena.

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan
San Jose, 11 bis Tel. 943 143334

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

S
DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278



Maite
ileapaindegia

festa giroan

INAUTERIAK

Aurten benetako lana hartu duzue mozorroak pentsatzen eta prestatzen. Bestela, begiratu argazkiei!

Argazkiak: Beñat (ZUGA), Miriam Romatet, BALEIKE





Karmengo Ama, 14
E-20749 **Airtoa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finès
frèch
euskara
englantí
español
catalonian
suomi basc
català finnois
francès anglès
catalan française
castellano finnish
inglès basci catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



ad

AUTOS ZUMAIA

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85



Ez dago dudarik
jendeak ondo baino
hobeto pasatu zuela.



**TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694**

ARROZTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPILOKINDEGIA

emili ibarbia aldasoro

(1)

Torreko Emili

ABELIN LINAZISORO

Torreko Emili gure haurtzarotan, eta geroxeago ere bai, egunero-egunero etortzen zen Goiko Plazara bere barazki, arrautza, baba eta abarrekin. Garai hartan Erribera kalean ia taberna denak eta komertzio bat edo beste soilik zeudenez, Zumaiian, okela, arraia, barazkiak, baba edo arrautzak eta beste hainbat jaki behar zituenak estratatik gora igo eta Goiko Plazara edo inguruetara joan beharra zuen. Goiko Plaza ingurua, Goiko Torrerraino, burnizko uztaietara lotuta eta kapalotar handiz zamatutako asto eta behorrez josita egoten zen. Hona hemen 40. hamarkadan hasiz, berrogei urtetan baserriko astoaz etorri zen hauetako bati egindako elkarrizketa.

Zenbat urte daukazu?
Larogeita hamaika.

1915-an jaioa orduan. Eta non jaio zinen hemen Artadin edo...
Ez. Hamen ez. Oikian.

Beraz, zuk haurtzaro osoa Oikian eman zenuen, ezta?
Bai. Ezkondu arte Oikian bizi nintzen.

Eta zer bizimodu mota eraman zenuen haurtzaroan?
Bizimodua? Guria zer izango zen, ba, pobriak ginan eta pobriena.



*“Eskola Oikian, baina
erderaz ein behar.
Euskeraz eiten
bazenun, kaskarreko
galantak.”*

Eskola han Oikian bertan zenuten, ezta?

Eskola Oikian, baina erderaz ein behar. Eta euskeraz eiten bazenun kaskarreko galantak. Maixua Betelu-koa genun.

Maixu berak ba al zekien euskeraz?
Bai.

Eskolak emateko orduan erdaraz egin arren, eskolatik kanpo zuekin hitz egiterakoan, errekreoan adibidez, euskeraz egiten al zizuen?
Hark ez zuen sekula gurekin irten ez errekreora eta ez inora. Gure artean bai, gure artean euskeraz eiten genun.

Sasoikoa al zen ala zaharra?

Zaharra nik uste. Hirurogei urte inguru. Prailietan eondakua omen zen.

Eta hark erdaraz irakasten bazizuen, zuek erdaraz zerbait jakingo zenu-ten, ezta?

Erderaz? Batez. Ez genun ezer enten-ditzen eta eskola dana buruz ikasi bihar. Zer esaten genun arrastorik ez eta segi.

Matematika irakatsi al zizuen?

Bai. Pixkat. Sumar, restar eta multipli-kar. Dibidir ez. Gero hamar urtekin izeko batek bere baserrira eraman niñun eta akabo nere eskola. Han amonari laguntzen ibili nintzan.

Hamar urte bitartean, eskolatik irten ondoren, jolasean ibiliko zine-ten, ba?

Bai. Plazan.

Zer jolas klase?

Gehienbat pelotan. Neskak eta muti-lak nahastuta.

Eta neskak bakarrik ez al zineten ibiltzen?

Bai, jakina. Neskak neskaekin soka-sal-tuan, lurrian kareakin edo harriakin raiak ein eta txintxarrika eta horrela. Eta mutilakin pelotan, baina apaizak ez zigun uzten alkarrekin jolasian ibiltzen eta hura azaltzen zanian, ospa. Mutilak martxa edo bestela neskak martxa.

*“Eta Iñaki eta hauen
aitta oso abertzalia
zan. Hark Euskadi
askatua ikusteko
esperantzaz haundia
zeukan.”*

Hamar urterekin amonari laguntze-ra joan zinen baserri hori non zego-en?

Zautzen. Baina han urtebete bakarri ein nun. Gure aitta eskola zalia zan. Hark esaten zun eskola daukanak ez dula lotsik. Nahiz ta beste ezerre jakin ez, eskola euki ezkeo, balekua.

Zarautzen urtebetean zer lan mota egin zenuen?

Hamar urtekin zer lan eingo nun, ba? Joan ganbara eta ekarri patata, ekarri artua... Hau garbitu eta hura jaso. Neskame.

Zarautzeko baserrian egon zinen bitartean jaietan joaten al zineten kalera?

Bai. Jaietan mezeta. Meza entzun eta txintxo-txintxo atzea berriz baserrira.

Jai egunean lana berdina egiten al zenuten, ba?

Ez. Hainbeste ez. Jai egunian gutxio.

Zarautzetik itzuli ondoren, Oikian jarraitu al zenuen eskolan?

Ez. Oikian ez zutela ondo erakusten eta Aizarnazabalaino hasi ginan juten. Goizian goiz jaiki eta taka-taka oinez. Kamiñoiz juten ginan.

Kamixua oraingo aldean estua izan-go zen, ba?

Ez. Oaingo moukoa. Diferentzi gutxi dao.

Aizarnazabalen, orduan, maixu hobia zegoen.

Maixua ez. Maistra. Gurekin gehio kezkatzen zan. Obligazioz erdaraz ematen zun eskola, baina entenditzen ez zuenari euskeraz ematen zion espli-kazixua.

Aizarnazabala, beraz, bazkaria zeue-kin eramango zenuten, ezta?

Bai. Jatekoa etxetik eramaten genun. Eguerdian han bertan jan eta arratsal-deko bostetan buelta etxera. Aizarna-zabalen pare bat urte eingo nun esko-lan. Eta hamahiru urtekin Zumaira, neskame. Yereginera umiak zaintzera. Hamen hiru urte-edo eingo nittun lanean. Irene, Edurne, Iñaki eta

INMOBILIARIA



Amaia

Julio Beobide, 3 behea 943 86 23 01

D'Ana
Decoraciones



Kantauni Plaza 6, behea tel. 943 117 406



AIZPURUA
LIBRUDEN

Alta-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

hauek zaintzera. Gero, ni gazteegia nintzala umiak zaitzeko eta beste nekame bat, zaharra, ekarri zuten.

Yereginen, hiru urte horietan, zer lan mota egin zenuen?

Goizian 6,30tan jaiki eta oheratzera-ko igual gabeko hamaikak izaten zian. Bazkaldu, beaiek salan eta ni sukaldian, baina jateko bea, e? Jaten-eta oso ondo ematen zuen. Ni ondo eon nintzan. Lana bai, baina hango etxeoandria ona zan. Lanean zekina eta nik zer lan ein eta nola ein agintzen zekina. Eta Iñaki eta hauen aitta oso abertzalia. Hark Euskadi askatua ikusteko esperantza haundia zeukan.

Orduan zu 16-17 urterekin lanik gabe geratu zinen.

Bai, baina beste nekame berri honek sei hilabete bakarrik ein zitun eta berriro Yereginetik deitu eta beste urtebete ein nun lanian. Gero, Donostira jun nintzan. Hara ere nekame. Loyola kaleko familia batena. Haundi usteko España zale hauetakoa zan. Gu bi nekame ginan. Konprak eiteko-eta dirua juxtu-juxtu ematen ziguten eta hilen bukaeran guri batez. Nazkatu eta alde ein nun. Oikira.

Oikian zer eiten zenuen?

Zer eingo nun, ba? Lana. Hantxe baratzean lanean. Etxeko lanak ere bai, sukaldean ere bai. Danetik.



*“Oikian San
Bartolomiak agostuan
hasi eta setiembre
bukatu arte izaten
zian. Bi hilabete
erromeixan jaiero.”*

Afal ondoren tertulian edo amonaren ipuinak entzuten edo horrelako zerbait egiten al zenuten?

Ez. Oso nekatuak eoten ginan eta afaldu eta ohera.

Eta jai egunetan?

Jai egunetan, zer esango dizut, ba? Goizian mezeta. Eta arratsaldean Miara juten ginan. Han beti erromeixa izaten zan eta Miara inguru guztietako jendia juten ginan. Soinua jotzen zuten, dantzan ein, eta iluntziakin batera etxera. Triticixa eoten zan eta dantzan sueltoan eta baltsian eiten zan. Gu mutilakin dantzan eiten ez ginan atrebitzen "Hijas de María" kongregaziotik botako ote gintuzten bildur.

Mutilekin, orduan, dantza sueltoan bakarrik.

Gu bai. Baina kongregaziotik botatzeko beldur ez zianak edo halako agindurik ez zutenak mutilekin berdinean eiten zuten dantzan.

Neska-laguntza egiteko ohitura normala izango zen, ba, garai hartan.

Bai, baina guri ez, gu hurre bizi ginan-eta. Baina urrutio bizi zianak izaten zuten, bai, neska-laguntza. Orduan dantza asko eta erromeia asko izaten zan. Pentsa zazu, Oikian festak, San Bartolomiak, agostuan hasi eta setiembre bukatu arte izaten zian. Bi hilabete erromeixan jaiero.

- Arrainak eta haragiak
aukeran

- Eguneako menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

eguneko zentroa

denbora pasatzeko lekua baino zerbait gehiago

Orain dela urtebete eskas sortu berri da Zumaian eguneko zentroa. Orain arte ezer gutxi jakin izan dugu funtzionamenduaren inguruan. Horregatik, eta nondik norakoak jakin nahian, bertako koordinatzailearekin eta gizarte langilearekin hitz egin dugu. Argi utzi digute eguneko zentroa denbora pasatzeko gunea baino zerbait gehiago dela.

MAITANE AGIRRE

Duela urtebete eskas sortu berri da Zumaian Branka ize-
nez ezagutzen dugun eguneko zentroa. Beharra Zumaia-
ko zerbitzu sozialetatik sortu zen, bertan ikusi baitzuten
eskaera gero eta handiagoa zela herrian.

Ordura arte, Zumaian bi zerbitzu bakarrik eskaintzen
ziren gaixotasun fisiko edo psikikoak zituzten pertsonak
zaintzeko edota etxean bakarrik geratu ezin zirenekin ego-
teko: etxez etxeko zerbitzua eta egoitza. Etxez etxeko
laguntza gehienez 2 ordukoa zen eta egoitzan eguneko 24
orduak igarotzen zituzten bertan. Horregatik, tarteko
irtenbide bat beharrezkoa zela ikusita, eguneko zentroa
sortu zen.

Gaur egun familiako kide gehienek lan egiten dute
edota ikasten ari dira eta gaixotasun fisiko edo psikikoak
dituztenak edo edozer egiteko laguntza behar dutenak
ezin dira bakarrik utzi etxean, betiere arriskua baitago zer-
bait gertatzeko. Horregatik, baliabide honek aukera ema-
ten du ordu batzuk zentroan igaro ondoren bakoitza bere
etxera itzultzeko. Izan ere, eguneko zentroa astelehenetik
ostiralera egoten da irekita goizeko 9:00etatik arratsaldeko
17:00etara. Azken batean, koordinatzaileak eta gizarte lan-
gileak adierazi digutenez, "Zentroa joaten direnen ingu-
rune soziala eta familiarra mantentzea garrantzitsua da,
eta horretan oinarritzen da, hain zuzen, eguneko zentroa".

Zentroan hiru laguntzaile, erizain bat, gizarte langilea,



koordinatzailea eta garbitzaileak daude lanean. Hara joa-
ten diren 18 pertsonak zaintzeko nahikoak direla adierazi
digute. Hala ere, zentroa 20 pertsona hartzeko dago pres-
tatuta.

Zentroan hainbat ekintza egiten dituzte eta horren bitar-
tez pertsona horiek pasiboak bihurtzea ekiditen da. Izan
ere, "Etxean normalean telebista ikusi besterik ez dute egi-
ten eta horrek pertsona horien maila kognitiboa lantzea
ekiditen du". Horregatik, gimnasia, laborterapia, eskula-
nak, memori tailerrak eta jokoak egiten dituzte. Horrela,
ekintza horien helburua pertsonen gaitasunak lantzea edo
guztiz ez galtzea da.

Ariketak ezartzeko garaian, lehendabizi bertara joaten
diren pertsonak aztertzen dituzte, eta horretan oinarritzen
dira ekintzak antolatzeko. Ekintza bakoitza helburu zehatz
batzuk lantzeko egiten da. Egun osoko plangintza osatze-
ko, helburu batzuk ezartzen dira eta ondoren horren ara-
berako ariketak prestatzen dituzte.

Bertako koordinatzailea eta gizarte langileak adierazi
digutenez, momentu honetan hiru taldetan banatuta
daude hara joaten direnak eta talde hauek bakoitzaren gai-
tasunaren arabera eratzen dituzte. Talde bakoitzean 4-6

pertsona egon arren, bakoitza oso ezberdina da eta adierazi digute askotan taldeak egitea oso zaila dela. "Beraiek kon-
turatzen dira talde ezberdinak daudela eta pertsona bat tal-
dez aldatzen baduzu galderak egiten ditu, baina normale-
an ordu batzuetako gauza izaten da, eta berehala
moldatzen da taldera".

Adierazi digutenez, ekintzak antolatzerakoan batzue-
tan arazoak edukitzen dituzte. "Eskulan mota bat ezin da
taldeko guztiekin landu. Taldekoen maila kognitiboa
antzekoa izan arren, bakoitzak bere ezintasunak dauzka;
pertsona batek, adibidez, ezingo du idatzizko memori lan
bat egin bista gaizki daukalako. Beste batek, adibidez,
entzumen arazoak dauka... Horregatik, oso garrantzi-
tsua da bakoitzaren ezaugarrietara moldatzen den lana
bilatzea. Baina, era berean, oso zaila da denentzat ondo
datorren ariketa bat osatzea. Horregatik, ezarritako arike-
tak egiteko zailtasunak dituztenei laguntzen aritzen dira
laguntzaileak eta begiraleak".

Horrez gain, familiakoen parte hartzea bultzatzen ere
saiatzen dira. "Askotan zaila izaten den arren, orain arte
oso ondo erantzun dute senideek. Lehenengo urteurren

festa egin genuenean eta Gabonetan, esaterako, familia-
koen partaidetza oso handia izan zen".

Beraien lanaz galdetu diegunean, berehala esan digute
jendeak pentsatzen duena baino zailagoa dela. Laguntzai-
leak eta begiraleak bertara joaten direnekin egoten dira
ekintzak egiten. Koordinatzaileak eta gizarte laguntzai-
leak, aldiz, bitartekari lana egiten dute eta kontaktua man-
tendu behar dute bertara joaten direnekin eta beraien
familiakoekin. Askotan zailena familiarekiko kontaktua
dela esan digute. Koordinatzaileak eta gizarte laguntzai-
leak emandako informazioa bakarrik daukate, baina
"Barruan nola dauden ez dutenez ikusten, askotan ez dute
ulertzen egoera eta zaila bihurtzen da komunikazioa.
Horregatik, arazoak sortzen dira familiakoekin. Lan erraza
ematen du, baina ez da horrela".

Badirudi, denborarekin lanbide honen profesionalta-
suna baloratu dela. Orain dela gutxi hitzarmen probintzial
bat sinatu da eta hori, momentuz, aurrerapauso garrantzi-
tsua izan dela esan digute. Ezer ez edukizetik beraien
lana baloratzea lehen pausoa izan da. Sektore honetan lan



"Bertara joaten
direnen ingurune
soziala eta familiarra
mantentzea
garrantzitsua da eta
horretan oinarritzen
da, hain zuzen, eguneko
zentroa".



Deialde Kibera 10 bidea, 28700 Gernika - Tel. 943 14 2017 - ekin@ekin.com - www.eokin.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 943 861412



Arrain eta
mariskoak

Barazkiak eta
aurrez prestatutako
jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

"Arazorik egon ez den arren, kostatu egin zaio jendeari eguneko zentroa onartzea".

Agian horren arrazoiak ezjakintasuna eta beldurra izango ziren.



egiten duten guztiak baldintza berdinetan daudela esan digute. "Eguneko zentroetan ez dago kexa handirik; egoitzetan gauzak ezberdin funtzionatzen dute".

Etorkizunera begira, zentroa laster beteko dela uste dute. "Zentroaren hasiera zaila izaten da, jendeak ez baitu ezagutzen. Normalean jendea zain egoten da funtzionamendua nolakoa izango den ikusteko. Horregatik, zentro bat ireki eta oreka lortzeko urtebete inguru igaro behar da".

Zentroak orain dela gutxi bete du urtebete ireki zene-tik. Herriak oso poliki erantzun duela esan dute. "Arazorik egon ez den arren, kostatu egin zaio jendeari eguneko zentroa onartzea". Agian horren arrazoia gauza berriak sortzen duen ezjakintasuna eta beldurra izango zirela esan digute. Hala ere, laster guztia beteko dela pentsatzen dute, "Eta orduan jende gehiegi dela eta bertara sartzeko listak egin beharko dira. Gainera, denborarekin eguneko zentro guztiak astelehenetik igandera egongo dira irekita, denborarekin eskaera gero eta handiagoa izango baita".

Ekintzak:

Astelehenetik ostiralera:

- 9:00-10:00 Gosaria
- 10:30-11:15 Egun on
- 11:15 Komunak
- 11:30-12:00 Gimnasia pasiboa
- 12:00- 13:00 Laborterapia/eskulanak
- 13:00-14:00 Bazkaria
- 14:00- 15:00 Atsedenaldia
- 15.30 Komunak
- 15:30-16:00 Memoria tailerrak
- 16:00-17:00 Jokoak (ostiraletan ordu honetan bingoan aritzen dira)



Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
tailerra: 943 860914
denda: 943 862385



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161

Olarru entsalada epela

O SAGAIK:

- 1 kg. olarru
- 2 tipula
- 2 tomate, entsaladarako
- 2 patata egosi
- 1 piper berde
- 1 kalabazin (txikia)
- 6 arrautza
- 1 letxuga

Beñat Fernandez
de Arroyabe
Sukaldaria



Hartu olarruaren burua eta garro puntak, eta dadotan moztu. Garroen zatirik lodienak luzetara moztu, bi zatitan. Salteatu tipula, piper berdea eta kalabazina, zati txikietan moztuta. Gehitu horri olarruaren burua eta garro zatiak. Horri arrautza botaz nahaskia egin.

Entsalada prestatu gatz, olio eta ozpinarekin. Horri, nahaskia bota gainean, eta inguruan plateraren ertz guztian garroen zati lodiak jarri. Aurrez, garro zati horiek plantxan berotu behar dituzue, gatz apur batekin.

Oharra: Olarrua egosi ondoren geratutako salda, olarru zopa egiteko erabil dezakegu.

Nola prestatu:

Egosi olarrua gatzik gabeko uretan, tipula oso batekin. Irakiten hasten denean jarri behar dugu olarrua uretan, eta, berriz irakiten hasten denetik, 45 minututan eduki. Ondoren, utzi bertan 15 minutu. Bitartean, azpil batean jarriko ditugu tomatea xerratan, horren gainean patata (xerratan baita ere), eta horien gainetik letxuga.



gorbaidun kornioa buskategoria
garebuz: 15m-40m.

GARRAIOAK
Asensio Artebe Iturbe

Tel: 943 557 189 / 655 706 557
Izurtari, 3-2A (Zumaia) • Adzpilgoia, 16-E (Mondrago)



gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 943 860959



INMOBILIARIA 943 143361
BIDAIK 943 143323
Ortega y gasset, 1



Tapaia
Barra

Enlbera Kalea 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 79



SAIOA
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 **943 860151**



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

ZOZKETA!!

Zumaiako txokoak

Asmatzen duzuenon artean, haur literaturako eleberri batzuk zozketatuko ditugu.

Zumaia eta inguruak ez ditugu behar bezala ezagutzen, altxor txikien jabe gara eta askotan ez gara konturatu ere egiten... Txoko honek lagunduko digu gure txokoak ezagutzen.



GALDERA:

Bi leiho, bi begi... , auskalo zer ikusi ote duten, urteen joan-etorrian, hortik gau eta egun begira... Garai batean, Ondartxo izenekoan bete-lana egin aurretik, leiho hauen behealdera errioko ura ailegatzen zen, eta etxe honetatik hurre zegoen marea errota ur horretaz baliatzen zen zerealak (artoa, garia eta abar) jo eta irina egiteko. Leiho hauen azpialdean zubi bat zegoen, eta zubia pasata Zubiaurre izeneko auzoa hasten zen. Gaur egun, ordea, garai batean auzoa zena kalea da.

Zer izen du kale horrek?

Erantzunak elkartea@baleike.comera bidali edota Baleikeko buzoian utzi

(Juan Belmonte 29 beheka) otsailaren 10a baino lehen. Erantzunekin batera izen abizenak eta telefono zenbakia jarri.

**Aurreko zenbakiko erantzuna:
Azkoin baserriak, zaharra eta berria.**

Saridunak:

- Kontxi Esnal
- Juana Alkorta
- Kontxi Aizpurua
- Esther Osa

Parte hartu eta zorte on!!

dekorazioa

ALBERDI



696 726188
943 143261

- **Eskaiola**
- **Pladur-a**



Jose M^a Korta Industrigunea
A1 - 4. Pabilioia
tel.: 943 86 50 68
fax: 943 86 13 45
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com



Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3^a 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
... mantenimendua

Nekazaritza zerbitzuak

Kirol zelaien mantenimendua

Txostenak ...
aholkularitza teknikoak,

Balaztiak

Zumaiako krosa: orain arteko jendetsuena

Aurtengo edizioan inoizko partaidetza handiena izan da. El Mastati eta Amilibia, azkarrenak.

BALEIKE

Inoiz baino korrikalari gehiago atera zen krosean: 480, eta helmugara iristen lehena gizonetzkoen artean, Bouizza El Mastati izan zen, eta, emakumezkoen artean, Nerea Amilibia.

Eguraldia nahiko triste esnatu zen, baina gero ateri egin zuen, eta agian horregatik hurbildu zen hainbeste jende.

Zorionak parte hartu duzuen guztioi!



EMAKUMEZKOEN SAILKAPENA

SENIORRAK

157	790	AMILIBIA ARRUTI, NEREA	:0:41:23
188	1073	ESNAOLA AGESTA, EVA	:0:42:09
228	1452	UBEDA ETXARRI, NEREA	:0:43:28
264	712	IBARBIA BELOKI, AITZIBER	:0:44:51
280	814	ARDIRONS BLANCO, ANA	:0:45:32
283	898	RODRIGUEZ ALDALUR, SARA	:0:45:41
295	960	ALONSO ASENSIO, MARGA	:0:46:29
300	936	ESNAOLA AGESTA, IDIOA	:0:46:39
304	716	IRURETA GARATE, ALAZNE	:0:46:48
382	896	KEREJETA LIZARAZU, AINTZINE	:0:51:20
383	895	IZAGIRRE, AITOR	:0:51:21
384	844	ZENARRUZABEITIA ERKIAGA, AITZIBER	:0:51:38
392	784	MENDOZA ETXABE, AMAIA	:0:52:23
416	710	IRURETA AZKUNE, ONINTZA	:0:55:58
418	899	IRURE IZETA, NEREA	:0:56:08

BETERANOAK

249	1188	ALDALUR AGIRREZABALAGA, ARANTXA	:0:44:13
417	1192	ZIGARAN BIDEBIETA, ARANTXA	:0:55:58

BETERANO ZUMAIARRAK

335	1043	SASIAIN CALVO, KARMELE	:0:48:41
381	1026	EGIGUREN EGIGUREN, ITZIAR	:0:51:20

ZUMAIARRAK

228	1452	UBEDA ETXARRI, NEREA	:0:43:28
335	1043	SASIAIN CALVO, KARMELE	:0:48:41
336	1437	ZUBIZARRETA SUDUPE, ENERITZ	:0:48:43
356	1453	ORUESAGASTI ALTUNA, ONINTZA	:0:49:58
379	1465	DURAN RINCON, INMACULADA	:0:51:15

JUNIOR ZUMAIARRAK

411	688	VELARDE MUGIKA, MAIALEN	:0:55:23
412	686	EIZAGIRRE ALBIZU, ANE	:0:55:38

SAILKAPEN OSOA IKUSI NAHI IZATEZ GERO, BALEIKE.COM-EN!



- * Egunekeo bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



GIZONEZKOEN SAILKAPENA

SENIORRAK

1	999	EL MASTATI, BOUIZZA	0:32:45
2	938	EL MILHOUDI, DAHBI	0:32:45
3	746	MUÑOZ DEL POZO, PEDRO	0:32:48
4	766	FERNANDEZ ALCALA, RITXAR	0:32:51
5	729	AIZPURU BEREZIARTUA, ENEKOITZ	0:34:22
6	756	MAYORA ELIZONDO, IKER	0:34:24
7	952	MUGIKA LARRAÑAGA, GORKA	0:34:25
8	891	SODUPE INTXUSTI, ARKAITZ	0:34:30
10	854	ZABALA AIZPURUA, LANDER	0:34:52
11	785	KORTAJARENA IRIBAR, HARITZ	0:35:08
12	752	ARRAZTIOA SARALEGI, ANDER	0:35:17
14	780	UGARTETXEA UGARTETXEA, ASIER	0:35:29
15	715	RUIZ DEL REY, JOSÉ ANTONIO	0:35:32
17	954	CASADO ARMENTIA, EDUARDO	0:35:38
18	742	MOLINERO MENDIGUREN, IMANOL	0:35:39

BETERANOAK

9	1146	VELEDA PRIETO, RICARDO	0:34:32
16	795	SALSAMENDI ANSORENA, MIGUEL	0:35:34

BETERANO ZUMAIARRAK

32	1040	ARRONA JIMÉNEZ, JESÚS M ^a	0:36:06
96	1033	YEREGI LETAMENDIA, YONI	0:39:13

ZUMAIARRAK

13	1456	OSA PENA, JAIME	0:35:23
20	1466	AGIRREZABALAGA MEABE, PAULO	0:35:40
21	1467	ULAZIA ARAMENDI, JON	0:35:44
26	1500	ETXEBERRIA URBIETA, PEDRO	0:35:59
48	1418	MANZISIDOR ERNABIDE, JON	0:37:08

JUNIOR ZUMAIARRAK

163	689	LEON EIZAGIRRE, OIHAN	0:41:33
410	687	AIZPURUA IBAROLA, AITOR	0:55:23

SAILKAPEN OSOA IKUSI NAHI IZATEZ GERO, BALEIKE.COM-EN!



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
INAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

astelenetik ostegunera 16:00-19:00
ostiralak 11:30-19:00
larunbatak itxita
aldeaz aurretik deitu

Basadi, 7 behe
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608-775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi ditutenean

- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltza

- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etchezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 943 861416

fidatzeko baimen guztiak



Gipuzkoako batelen DV liga abian da

Aurtengo urtean ere Zumaiako Arraun Taldeak 3 batel atera ditu bakoitza kategoria batean. Mutilek bi talde osatu dituzte: kadeteak eta jubenilak. Neskei dagokienez,

iaz halako poztasun eta ilusioa ekarri zuten neska koadrilak utzi egin du, baina orain beste boskote bat dabil jo eta ke lanean, haur-kadete mailan.

IZASKUN URBIETA

2006ko Gipuzkoako Liga otsailaren 12an hasi zen Trintxerpen. Bigarren jardunaldia, berriz, Orion jokatu zen, otsailaren 25ean, eguerdian.

Haur-kadete mailako neskek beraien lehendabiziko estropada Trintxerpeko uretan jokatu zuten. Urduri zeuden, baina hala eta guztiz bigarren postua lortu zuten, eta ez da emaitza txarra.

Koxtape izan zen garaile, 05'13"76ko denborarekin. Jarraian zumaiaarrak izan ziren, 36 ehunetara, hau da, 05'14"12ko denborarekin. Atzetik sanpedrotarrak izan ziren 05'34"56ko denborarekin. Tolosaldeko bi batelak, berriz, estropadatik kanpo geratu ziren.

Pena handia hartu zuten neskek hain denbora gutxigatik bigarren postuarekin konformatu behar izan zutelako. Baina aipatu behar da Olatz Agirregabiria gaixo zegoela eta ezin izan zutela onena eman.



Hurrengo estropada Orion jokatu zuten eta bertan errebantxarako aukera izan zuten. Trintxerpen ez bezala, Orion binaka jokatu zuten estropada eta Aita Marikoei Koxtaperen aurka neurtzea tokatu zitzairen.

Ez zen estropada bikaina izan, baina zumaiaarrak garaile atera ziren. Amaieran 05'16"49ko denbora markatu zuten; Koxtapekoek, berriz, 05'18"91. Gainerako taldeak oso atzetik iritsi ziren helmugara.

Zumaiaarren batela honako neskek osatzen dute: Olatz Agirregabiria, Ainhoa Iriondo, Aintzane Urbietta, Izaro Etxaniz eta patroil lanetan Ana Reyes.

Liga hasi besterik ez da egin, baina ikus dezakegunez, lehia bizia izango dute Aita Mariko eta Koxtapeko bi talde hauek. Ea gure taldeak zorte handia duen eta lehengo nesken koadrilak bezala banderak etxera ekartzeko moduan dauden.

EGOKI



*Erloju
eta bitxidenda*

E. Gurrutxaga plazan

BEDUA
ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA



-KALEFAKZIOA
-ZORU BERO-EMALEA
-GAS INSTALAZIOA
-GAS NATURALA
-BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69



Kadete mutilen lana ere aipatze-koa da. Neskek bezala, Liga Trintxerpen hasi zuten. Baina hasieratik arazoak izan zituzten. Estropadako arduradunek Aita Mariko entrena-tzaileei esan zieten patroiak, Iñaki Aristik, ezin zuela estropada jokatu gazteegia zelako. Iñakik oraindik 11 urte ditu. Horren ondorioz, Ana (nesken patroia) jarri zuten mutil kadeteen gidari.

Mutilek bigarren postua lortu zuten Orioko A batelaren atzetik. Oriotarrek 06'41"33ko denbora lortu zuten eta zumaierrek 06'56"57koa.

Orioko estropadan ere arduradu-nen jarrera berbera izan zen: legeak aldatu egin dituztela eta ezin duela horrelako mutil gazteak estropada jokatu. Hori horrela izanda, zumaia-rrek patroia berri bat aurkitu behar izan zuten. Eneko Cabello ordezk

patroia jarri zuten. Aurten hasitako mutila da, oraindik esperientzia gutxikoa.

Orioko estropadan ez zuten egun oso ona izan eta denbora kaxkarra goa egin zuten, 07'37"20, eta laugarren izan ziren. Garaile Orioko A izan zen, 07'20"99ko denborarekin. Hala ere, esan beharra dago bederatzi taldeetatik laugarren postua lortzea ez dela hain txarra. Arraunlariak hauek dira: Ibon Basterretxea, Markel Mendizabal, Iraitz Arrizabalaga, Joseba Aristi eta Eneko Cabello. Ea hurrengo estropadetan zortea aldeko duten eta orain bezala goiko pos-tuetan ibiltzea lortzen duten. Ani-morik ez zaie faltako, behintzat!

Gure arraun taldeen errepasoa bukatzeko, gazte kategoriako muti-len lana azalduko dugu. Besteek

bezala, Trintxerpen hasi zuten Liga. Maila honetan lehia askoz ere nabarmenagoa dela esan dezakegu. Izan ere, mutil zaharragoak dira (17-18 urte bitartekoak), normalean arraunean aspalditik dabilta, espe-rientzia gehiago dute eta asko senio-rretara pasatzeko azken txanpan sar-turik daude.

Maila honetan talde gehiagok hartzen dute parte, 11k hain zuzen ere. Zumaierrek seigarren postua lortu zuten Trintxerpen, 07'51"03ko denborarekin. Garaile Orioko A batela atera zen, 07'27"58ko denbo-rarekin. Getariarrak bosgarren sail-katu ziren, zumaierren aurretik, segundo batengatik.

Orion jokatu zen estropadan, aldiz, Aita Marikoek laugarren postu bikaina lortu zuten. Irabazlea Koxtape izan zen (Orioko A deskalifi-katua egin zutelako) 09'03"37ko denborarekin. Zumaierrek 09'31"39 denbora lortu zuten. Getariarrak, berriz, bosgarren gelditu ziren, 09'32"98ko denborarekin.

Arraunlari hauek hartu zuten parte Orion: Egoitz Lopetegi, Odei Arrizabalaga, Xipri Elorza, Erik Mendizabal (Jon Martinen partez) eta Unai Osa patroia.

Ea hauek ere lan bikaina egiteko moduan diren eta Baleiketik zorte-rik onena opa diegu gure arraunla-riei. Animo eta zorte on!

Alberdi
Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

GANBARA



Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

ZINE FORUM

Otsailak 23, osteguna, gaueko 10:15ean

Dentro de Garganta Profunda

Zuzendaria: Fenton Bailey eta Randy Barbato



Emaitzak oso ikusgarriak izan ziren. 25.000 dolar balio izan zuen pelikula izugarrizko arrakasta izan zuen eta 600 milioi dolar bildu zituen. 30 urte geroago, mito bat da eta Garganta profunda du izena.

Zineman hasi aurretik, emakumezkoen ile apaintzaile izan zen zuzendaria,

Gerard Damiano, eta bere ustez, Garganta profunda pelikula txarra zen. Txarra, baina oso dibertigarria, eta hainbeste kardatu, laka eta errulo artean entzuten zituen kezka sexualeri erantzuten ziena. Garai hartan sexua tabua zen, eta horregatik 3. mailako aretoetan ikusi beharra zegoen. Alde horretatik, Garganta profunda mugarrria izan zen: zalaparta handiz estreinatu zen eta egun batetik bestera fenomeno sozio-kultural bihurtu zen, eta sentsazio berriak behar zituen gizarte haren kezkei erantzuten zien. Inside Deep Throat-en bidez, Fenton Bailey-Randi Barbato bikoteak film honen atzealdean gertatutako guztia arakatu zuen, eta ordura arte inoiz ikusi gabeko eta Linda Lovelacek eginiko felazio hark nolako eragina izan zuen azaldu nahi izan zuten zuzendariak.

Hasieran, barrea da nagusi filmean, protagonisten adierazpenak ere azal-tzen dira, argumentuaren premisa burugabea –"Klitoria eztarrian"– azal-tzen digute eta muntaia oso dinamikoa da; aurrerago, ordea, gaiari askoz ere serioago heltzen zaio, tratamenduak groteskoa eta tragikoa uztartzen ditu eta Estatu Batuetako gizartearen moralak dituen bi aurpegiak heltzen zaio, hainbesteko beldurra eragiten duenari.

Gerard Damiano zuzendariak, Ron Wertheim ekoizpen zuzendari burugabeak eta kamera laguntzaile hasita azkenean protagonista bihurtu zen Harry Reemsek pelikularen hainbat pasadizo gogoraziko dizkigute kameraren aurrean, eta bestelako iritziak ere azalduko dira, besteak beste hauenak: Gore Vidal, Norman Mailer, John Waters eta Erica Jong-enak.

ALTZARIAK OSTOLAZA ARROZTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
arroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



tresna digi-
internet
scanner



Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95



Nikol Enea

TABERNA

Amaiako plaza

gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4 tel: 943 860970

IKASTAROAK

Kzgunea Zumaia 943862866

- Martxoaren 6tik 17ra,
10:00etatik 12:00etara.
- Martxoaren 20tik 31ra,
9:00etatik 11:00etara.

Beheko Plaza gizarte zentroa :
943-862741

- Saloiko Dantzak.
Larunbatetan, 16:30ean eta
18:00etan.

IRTEERAK

Turismo Bulegoak Antolatuta:
943-143396

Martxoaren 11ean: BASTIDA -
SAMANIEGO - ELCIEGO

DEIALDIAK

- SAHARAKO HERRIAREKIN
ELKARTASUN ASTEA:
martxoaren 6tik 12ra,
hitzaldiak, filmak eta
erakusketa Alondégian.

- ZUMAIKO XII. MENDI
ASTEA: mendiko ikus-
entzunezkoak, martxoaren
lehen hamabostaldian.
- SANTELMOAK 2006: herriko
kultur, aisialdi eta kirol
taldeek jai egitarauan sartu
nahi dituzten ekitaldien
proposamenak Foronda
Kultur Etxera eraman behar
dituzte. Azken eguna:
martxoaren 17a.
- ARGAZKI AUKERAKETA
2006: argitalpenetarako
argazkiak lortzeko deialdia.
Lanak aurkezteko epea,
martxoaren 31. Oinarriak
kultur etxean.
- HAUR ZINEMA ZIKLOA:
udalaren babesean, igande
arratsaldeetan Aita Marin.

MARTXOA

- 10, ostirala
19:30ean, Julene Azpeitia
literatur sarien banaketa.
Ondoren, Bernardo Atxagak

idatzi eta "Ez dok hiru"
bikoteatroak taularatzen
duen "LEZIO BERRI BAT
OSTRUKARENTZAT"
antzezlan.

11, larunbata
SAHARAKO HERRIAREKIN
ELKARTASUN EGUNA
Eusebio Gurrutxaga plazan:
musika, ipuin kontaketa eta
hango ohituren erakusketa.
18:00etan, Forondan,
Emakumearen Eguneke
Kontzertua.

- 12, igandea
Zumaia Ibilaldi Neurtua.
17.00etan, "Kiriku eta
basapiztiak" haurrentzako
emandalia Aita Mari aretoan
- 19, igandea
17.00etan, "Micaela"
haurrentzako emandalia Aita
Mari aretoan.
- 22, asteazkena
17:30ean, ipuin kontaketa
haur liburutegian.
- 23, osteguna



Martxoak 8

Aurten hainbat ekitaldi egin dira, emakumeen
eskubideen alde. Emakumearen egunarekin lotutako
ekimenak martxoaren 11n amaituko dira.

22:15ean, Aita Marin, zine
forum saioa: "Dentro de
Garganta Profunda".

IMGINARIOAREN "Aurrevoire
trionfadoreak" antzezlan.

- 26, igandea
12.00etan, "Amama
Pantxikaren altxor ezkutua"
antzerkia, Aita Mari aretoan.
- 31, ostirala
22:00etan, ANTZERKIOLA

APIRILA

- 2, igandea
17.00etan, "La profecía de la
rana" haurrentzako
emandalia Aita Mari aretoan



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko
baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA: Gidari trebe
eta profesionalak egitea

ZUMAIÀ

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



taberna
JUSTA

eguneko bazkariak

Erribera kalea, 20



Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083



Zure
larruazala
leun-leun
goza
dezazun

FotoDepilazioa

ESKAITZA!
Hanka erdiak 150 €

Hilabetero
eskaintza
bereziak
Galdetu lasai

Depitotal

Tel. 943 86 13 22
Bonifacio Etxegarai z/g
Zumaia

**Coro
Prieto**
Estetika
Zentroa



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA

IBARGUREN

agustin

• Txarkuteria bikaina
• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak